

AZKOITIA / 'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpaina berriro jarri du martxan Topaguneak

Euskaraz irakurzaletasuna bultzatzeko kanpainari esker %50eko beherapena lor daiteke

I. ELORZA

Atzotik abian da Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak hirugarren urtez antolatu duen Irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina. Euskal Herriko 21 herritan gauzatuko da egitasmoa, tartean, Azkoitian. Tokian tokiko euskara elkarteek, udal liburutegiek eta liburu dendek hartzen dute parte euskaraz irakurzaletasuna bultzatzeko proiektuan. Uztailaren 24an bukatuko da aurtengo kanpaina.

Liburutegitik liburu dendara

Topagunearen kanpainan parte hartzeko, Aizkibel Udal Liburutegian euskarazko liburu bat aukeratu behar da lehendabizi. Maileguan hartu, etxera eraman eta irakurri ondoren, liburuaren fitxa bete behar da liburutegian. Hala, beherapen-txartela eskuratuko irakurleak eta, horrenbestez, Iratzar eta Lujan liburu dendetan euskarazko edozein liburu erosterakoan %25ko beherapena lortuko du erabiltzaileak. Gainera, Maxixatzen Euskara Elkarteak bazkideek %25eko beste beherapen bat izango dute.

Adin guztientzako eskaintzak

Uxue Alberdi idazleak eta zenbait liburutegitako arduradunek 100 liburuz osatutako zerrenda prestatu dute irakurleak gidatu asmoz. Bestalde, tokian tokiko euskara elkarteek liburuaren aukeraketa bat egin eta proposamen gisa aurkeztu dituzte.

Maxixatzen Euskara Elkarteak osatutako zerrenda

www.topagunea.org/irakurri webgunean eta Aizkibel Liburutegian kontsultatu daiteke. Sei sailetan banatuta dago zerrenda, irakurlearen adinaren arabera bilduta.